

Ordenantzen behin betiko onespena

Ordenantzak hasiera batez onesteko erabakia 1999ko otsailaren 1eko 14. Nafarroako ALDIZKARI OFIZIALEAN argitaratu ondoko jendurreko epea alegaziorik gabe iragan denez, Etxauriko Udalak, osoko bilkuran eta aho batez, hots, legez eskaturiko gehiengoa izanik, honako hau erabaki zuen:

1. Udalaren baliabide hauek ordainarazteko ordenantza fiskalak behin betikoz onestea:

-Ordenantza fiskal orokorra.

-Kontribuzio berezien ordenantza fiskal orokorra.

-Jarduera sailkatu eta kaltegabeetan aritzeko eta jarduera eskualdatzeko lizentzien tasak arautzen dituen ordenantza fiskala.

-Irekitzeko lizentzien tasak arautzen dituen ordenantza fiskala.

-Eremu publikoko eta herrilurretako zoruan, hegalkinean eta zorupeko probetxamendu berezien prezio publikoak arautzen dituen ordenantza.

2. Ordenantzen testu osoa Nafarroako ALDIZKARI OFIZIALEAN argitaratzea.

Etxaurin, mila bederatzehun eta laurogeita hemeretziko martxoaren hamarrean. Alkatea, Alejandro Labiano Irujo.

Iragarkiaren kodea: A9903846